

❖ SARRERA

Gu Irati, Iraia, Leire eta Irune gara, eta kafetegi bat egitea pentsatu dugu “Kafegoxo” izenarekin. Gure kafetegia besteetaz desberdinduko da, produktu ekologikoak erbiliko ditugulako, eta material birziklatuak, hau da, plastikorik gabekoak. Planetari ahalik eta kalte gutxien egiteaz gain, gure bezeroengan pentsatuko dugu, produktuak beraien gustura eta



toki lasaia eskainiz. “Kafegoxo” Villabonan kokatuko dugu, Larrea auzoan, zehazki. Negozio hau garatzeko ideia izan genuen, ikusi baikeguen gutxi zirela zerbitzu mota hau eskaintzen duten kafetegiak eta eskari haundia dutela. Gainera, ez da kafetegi bat besterik izango; izan ere, liburuez beteriko apalak egongo dira, bezeroei irakurtzea nbultzatzearren.